# EDURNE
## P A S A B A N

OLASAGASTI · LLAGUNO · NAVARRO · VILLAREJO



SUA EDIZIOAK

#mendifilm


JAKIN DUZUE ALPINO UZTURREKOEK ESKALADA IKASTARO BAT ANTOLATU DUTELA?
ESKALADA IKASTAROA? ETA NOIZTIK INTERESATZEN ZAIZU ZURI ESKALADA?
ZURI ERE IGUAL INTERESATUKO ZAIZU. BADAKIZU NOR DEN IKASTAROA EMATEN DUEN BEGIRALEETAKO BAT?
NOR?
DAVID.
EZ ESAN. NOR ANIMATZEN DA? NI BAI...
HARA GURE ESKALATZAILEA.
TXINDOKIKO ERTZA ESKALATUKO DUGU GAUR. ZAZPITTURRIKO ESKOLAN IKASITAKOAK PRAKTIKAN JARTZEKO GARAIA DA. PREST?
PREST.


HI, ASIER HIRE LEHENGUSINA NAHIKO ONDO MOLDATZEN DUK E!
SOKA MOTZEAN LOTU NAHI HAU. EZ AL HAIZ KONTURATU?
BAI ZERA! MUNDU HAU GUSTATZEN BAZAIOK, HOBE DIK HIRE SOKARA LOTU.


1998KO ABUZTUAN, DHAULAGIRIRA ABIATU BAINO HAMABOSTALDI BAT LEHENAGO, KOLPE GOGORRA JASO DU TALDEAK, BATEZ ERE ASIERREK ETA EDURNEK.
JODER ASIER, HARTU DUZU LATZA!!
BAI, BI ORNO APURTUTA ETA GAREZURREAN ERE HAUSTURA TXIKI BAT. PARAPENTERIK GABE EGIN NUEN HEGAN.
NI ERE EZ NAIZ JOANGO ASIER, ZU GABE NI EZ NOA!!
NI ALDAMIO BATETIK ERORI NAIZ, BAINA ESPEDIZIOAREN ALDAMIO OSOAK EZIN DU ERORI, EDURNE.
LAN PILA BAT EGIN DUGU HARA JOATEKO... JOAN EGIN BEHAR DUZU. ZURE AUKERA DA.
ASIER IZAN EZIK, BESTE BOST TALDEKIDEAK JOAN DIRA DHAULAGIRIRA: JUANJO ELOLA, TITO ETA JESUS MARI AGIRRE MAULEON ANAIAK, EMILIO GONZALEZ ETA EDURNE.
IKUSGARRIA, KALI GANDAKIREN EZTARRIA!!


BELGIKARRA 100 METRO INGURURA DUTELA, ORDEA...
EEEZZZZZZ!!!
EEEEEEZZZ!!!
ASKI DA, EDURNE. GERTATU DA, EZ DAGO BUELTARIK.
HAUEK HIMALAIAKO MENDIAK DIRA. BIGUNEGI DUZU ORAINDIK BIHOTZA.
ETA EZ AL DA INOIZ IZOZTUKO?


HURRENGO URTEAN (2000), BERRIRO ERE EVERESTEKO IPAR AURPEGIKO KANPALEKU NAGUSIAN ELKARTU DIRA SILVIO MONDINELLI ETA EDURNE. TALDEAN DIRA WILLY BAÑALES, JOSU FEIJOO, ANGEL NAVAS ETA BESTE ZENBAIT KIDE ERE.
GOGORRA EGITEN ZAIT ESPEDIZIOETARA MUGATU BEHAR IZATEA GURE ARTEKOA, SILVIO.
HIMALAIAKO MAITALE HUTS IZATEA.
ULERTZEN DUT, EDURNE, BAINA ORAINGOZ EZIN DITUT SOKA GUZTIAK ETEN, EMAZTEA ETA SEMEA DITUT.
BEGIRA HOR, MALLORY, IRVINE ETA KONPAINIA.


1987AN, *ZODIAC* ESKALATU ZUEN JON LAZKANOREKIN; ONDOREN, *ECLIPSE LUNAR* JESUS GALVEZEKIN, ETA AZKENIK, *MESCALITO*, JOSE BEDIAREKIN.
"CAPI"-K HARRIZKO BIHOTZA DAUKA, BIHOTZ HANDI ETA ONKOTEA: HAN GORDETZEN DITU BERE GRANITOZKO GORPUTZ PUSKAN AMETS BAT JARRI ZUTEN JENDE ASKOREN ILUSIOAK.
ETA 1988KO BIDAIA HONETAN BERRIZ, *DIHEDRAL WALL* ETA *THE SHIELD* BIDEAK ESKALATU DITU JESUS BUEZO *RISIREKIN*.
ZAZPI HILABETEKO BIDAIA BATI EKIN DIOTE RISIK ETA MIRIAMEK. YOSEMITEN HASI, PERUKO MENDILERRO ZURIAN JARRAITU ETA PATAGONIAN BUKATU.
BERE 25. URTEBETETZEAREN BUELTAN, ALMAPANO OPARITU DIO PERUKO MENDILERRO ZURIAK, ANDEETAKO GAILURRIK POLITENA.


PATAGONIAN BI HILABETE EGIN DITUZTE, ELURRETAN EGINDAKO KOBAZULO BATEAN EGUN ASKO ETA ASKO, BAINA FITZ ROYK EZETZ, HAIZEZ ETA ULUZ EZETZ ESAN DIE.
DESIRAK BIZITZA OSOA IRAUN ZEZAKEK, RISI. GAILUR BATEN POZAK, ALDIZ, DOI-DOI IRAUTEN DIK DESIRA DEUSEZTATU ARTEKO UNE HORI.
ÑO, SAKONA DUN HORI, MIRIAM. PATAGONIARA ZERBAIT ESKALATZEKO ASMOAREKIN DATOZENENTZAT KONTSOLAMENDU ESKASA HALA ERE.
RISI, KONTATU AL DIAT INOIZ LORE IZAN NAHI ZUEN IZARRAREN KONDAIRA?
EZ BA.
ETA HORRELA BIHURTU OMEN HUAN IZARRA HARKAITZETAKO ELUR-LORE...
BA ZER NAHI DUN ESATEA... NIK NAHIAGO NIKEN IZAR IZAN LORE IZAN BAINO. GAILURRAK, BIZITZA BERA, LOREAK..., EFIMEROAK DITUN. DESIRAK, AMETSAK, IZARRAK... BERRIZ, IRITSI EZINAK.


ZER IZAN DA HORI?
JUANITOREN BUZOAREN ISLATZAILE BAT IZAN BEHAR DU.
JUANITO, JUANITO, JODER!!
FERRAN! MUGAREN ZER ALDE DA HAU?




EGUN GUTXIRA, ZARAGOZAKO MAZ OSPITALEAN, KIKO ARREGI NEUROZIRUJAUAK ANESTESIARIK GABE EMAN DIE BERE DIAGNOSTIKOA.
BIZIRIK ZAUDE, ETA POZIK EGON ZAITEZKE, BAINA BEHATZAK... NABARMEN IKUSTEN DA IZOZTEEN MUGA. BEHATZ HORIEK HILDA DAUDE.
ZURE KASUAN, EDURNE, BEHATZ ERAKUSLEEN BI FALANGE HORIEK ITSUSI DAUDE, BAINA GAINERAKOAK SALBATUKO DITUZULA USTE DUT.
EGUNEN JOANEAN...
BESTE LORE-SORTA BAT, EDURNE. HAU DA HAU LORATEGIA! GOZOA DAGO JUANITO. EGUNERO GALDEZKA DABIL ZENBAT LORE JASO DITUZUN. JELOSKOR DAGO GIZONA, BERAK GUTXIAGO JASOTZEN DITUELA ETA.


2010EKO MAIATZAREN 17A.
HEMEN ASIER SHISHA GAILURRETIK.
EDURNE ERABAT HUNKITUTA DAGO, ORAINTXE BERTAN EZ DA GAI HITZIK ESATEKO.


ETA ORAIN ZER, EDURNE?
EZ DAKIT, ALDE BATETIK, HAUXE NAHI NUEN, BAINA, BESTETIK, EZ DUT BATERE GOGORIK ERREALITATERA ERAMANGO NAUEN JEEP HORI HARTZEKO.
LURMENDU DA HAMALAUEN ERRONKA.